

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

2026ko ekainaren 8ko Erabakiaren laburpena, zeinak familientzako udal laguntzak deitzen baitzituen, udalerri mugakideetan kirol edo hezkuntza jarduerak egiteak sortutako garraio gastuetarako

BDNS (Identif.): 924548.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/924548>.

Deialdiaren xedea

Laguntza honen xedea da arautzea Donemiliagako Udalean eskaini ez eta Lautadako Kuadrillako beste udalerri batzuetara eskolaz kanpoko hezkuntza jarduerak edo kirol jarduerak egitera ibilgailuz joan beharrak sortutako garraio gastuetarako dirulaguntzak emateko baldintzak eta araubide juridikoa.

Onuradunek betekizun hauek bete beharko dituzte

a) Laguntzaren eskatzaile eta onuradunak udalerrian erroldatuta egon beharko du, bai eta eskabidea egin ondorengo, gutxienez, bi urteetan ere.

b) Gutxienez eskola orduen ehuneko 80ra joan behar da edo matrikulatutako ikastaroa gainditu.

Onuradunak

Dirulaguntza eskatu eta 2025/2026ko ikasturtean zehar Donemiliagako udalerri horretan erroldatuta egon diren eta bertan bizi izan diren pertsonak (familia unitatea) jaso ahal izango dituzte oinarri hauetan araututako laguntzak.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako udalbatzak 2026ko ekainaren 8an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen babesean ematen diren laguntzak 2026ko aurrekontu orokorraren 326.482.001 partidako aurrekontu kredituari egotziko zaizkio. Partida hori 6.000,00 euroz hornituta dago eta aurrekontu partida horretakoak agortu arte emango dira laguntzak.

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2026ko irailaren 15ean amaituko da.

Erdoñana, 2026ko abuztuaren 10a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO